

EAEko hamar gaztetik lauk azken hilean liburutegietara edo mediatekatara joan direla diote

Ehuneko hori orain dela bost urtekoa baino garaiagoa da


2012ko urriaren 24an Liburutegien Eguna ospatzen dela eta, [Gazteen Euskal Behatokiak](#) datu berri batzuk kaleratu nahi ditu. Datuok Euskadiko gazteak liburutegietara eta mediatekatara joateko ohiturari buruzkoak dira. Euskal Gazteen Behatokiak 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen lagina adierazgarri bati egindako inkesta batetik datoz datu horiek.

2012ko martxoan EAEko gazteen % 39k adierazi zuten aurreko hilean liburutegi edota mediatekaren batera joan zirela.

Emaitza horiek 2007 eta 2008 bitartean [Kulturaren Euskal Behatokiak](#) eginiko antzeko inkesta batetik ateratakoekin alderatuz gero, ikus dezakegu liburutegietara joateko ohitura zabaldu egin dela eta bost urteko epean % 33tik % 39ra pasatu dela.

Gure arreta 2012ko datuetan jarrita, esan dezakegu neskek mutilek baino zabalduago dutela liburutegietara joateko ohitura (% 45 eta % 34, hurrenez hurren).

Adinean behera egin ahala handiagoa da liburutegietara joaten diren gazteen ehunekoak, eta 25 eta 29 urte bitarteko gazteen artean laurdenak baino pixka bat gehiago badira liburutegietara hurbiltzen direnak (% 28), 15 eta 19 urte bitartekoen artean erdiak baino gehiago izatera pasatzen dira (% 54).



Gazteak bizi diren udalerraren tamainak ere eragina du liburutegietara joateko ohituran: udalerrri ertainetan edo hiriburuetan bizi direnak gehiago joaten dira (% 40), 10 000 biztanle baino gutxiagoko herrietan bizi direnak baino (% 35).

Lurralde historikoei dagokienez, Arabako gazteak (% 43) Gipuzkoakoak baino neurri handiagoan joaten dira liburutegietara (% 41), eta azken hauek Bizkaikoak baino gehiago (% 37).



Azkenik, Gazteen Euskal Behatokiak gogorarazi nahi du [Dokumentazio Zentroa](#) duela eta bertan fondo bibliografiko zabala duela, ia 4000 monografia eta gazterian espezializatutako 80 aldizkari inguru biltzen baititu. Dokumentazio Zentro hori zerbitzu publikoa eta doakoa da eta [Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen](#) barruan dago.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!

